

Esnekiak gogoko ditut

Esnekiak oso gomendagarriak omen dira osasunerako, kaltzio iturri garrantzitsua baitira. Horrexegatik, edo akaso beste arrazoi ezkutu batengatik, Yogurinha Borovak oso gustuko ditu. Hain gustuko dituenez, kanta bat ere dedikatu die.

Uste al zenuen euskal musikan dena trikitixa eta panderoak zirela? Oso oker zeunden. Ikusi, jarraian, kantaren bideoa eta saiatu bertan aipatzen dituzten esneki guztiak apuntatzen:

<https://www.youtube.com/watch?v=p83RCyPYoIA>

Esnekiak gogoko ditut

(Yogurinha Borova)

Esnekiak gogoko ditut

_____ beroa, _____ gaingabetua

Esnekiak gogoko ditut

Titanio zurruta, _____ eta _____

Irrintzi lizunak nahi ditut

Kili-kili efektua ta zezenaren _____

Maitea, edan ezazu berriz (bitan)

Esnekiak gogoko ditut...

Esnekiak gogoko ditut

Beirazko katilutan zein birziklatutakotan

Esnekiak desio ditut

_____ biziégaz, baserriko ausartari

Top modela naizelako, arrakastaz,

Eta maripurtzil aparta

_____ epel-epela, zuri-zuria

Jaurtialdi baten bila

Maite nauzu, badakit

Desiratzen nauzu (bitan)

Itxoiten beti, apalean gordeta

Noiz etorriko ote zara?

Zu ni lapurtzeko zain

Hozkailuan zabaldua

_____ bila bizi naiz

Irteeratik oso gertu

Inork ez baitaki

Noiz egin behar den ihesi

Esnekiak maite dituzu...

Maite nauzu, badakit

Desiratzen nauzu



Yogurinha Borova Eduardo Gaviñak (Laudio, 1969) gorpuztutako pertsonaia da. Yogurinha aktore, show woman eta kabaretaria da; Eduardo, berriz, argazkilaria da lanbidez.

Yogurinhak urteak daramatza oholtzaren gainean lanean eta Bilboko gauetan ikus dezakegu, besteak beste, sekulako arrakasta izan duen 'Eraso sexistarik ez' abestia kantatzen.

Eduardo Gaviña: "Bilbora etorri nintzenean Bilboko gauak zoragarriak ziren. Gaur, berriz, oso aspergarriak dira"



uriola.eus, 2018-10-05

Eduardo Gaviña (Laudio, 1969) argazkilaria, aktorea, abeslaria, eta, batez ere, kabaretaria ___1___. Yogurinha Borova ezizenarekin ezagutzen ___2___ eta Bilboko gauetan ikus ___3___ sekulako arrakasta izan duen 'Eraso sexistarik ez' abestia kantatzen. Izan ere, Yogurinha Borova urteak ___4___ oholtzaren gainean lanean. Pertsonaia *Las Fellini* taldean sortu ___5___ 1994an, Bilbon. "Laudiotik Bilbora etorri ___6___, egun haietan hau itzela ___7___. *Las Fellini* ikustera askotan joaten ___8___ eta azkenean taldean sartzera gonbidatu ___9___". Hasieran, *Spice Gays* ikuskizunean parte hartu ___10___ eta taldeko pertsonaiei izena jartzeko beharra ikusi zutenean sortu ___11___ Yogurinha. Orduetik, Bilboko taberna eta bestelako aretoetan ikuskizunak, ezkon-aurreko agurrak eta hainbat festatan girotzeak batera egiten ___12___. Hamar urte eta gero taldea utzi eta abeslari bezala aritu izan ___13___. Euskaraz lan egitea erabaki ___14___ eta 'Eraso sexistarik ez' abestiak izan duen arrakastak ateak ireki ___15___: "Aurten udan lan asko egin ___16___, Gipuzkoako zenbait herritan egon naiz, eta jendea beste herrietatik ___17___ ni berriro ikusteko, zoragarria izan da." Hala ere, transformisten lana gogorra dela azaldu ___18___. "Bilbora etorri nintzenean Bilboko gauak zoragarriak ___19___. Gaur, berriz, oso aspergarriak ___20___, ez dago girorik eta lana topatzea zaila da". Baina, ostiral guztietan Yogurinha Borova ikusteko aukera dago. Izan ere, udaletxearen atzekaldean (Kristo kalean) dagoen Key tabernan bere showa egiten ___21___ gau horietan. Horrez gain, disko berria prestatzen ari da. Musikarekin ezin ___22___-ela bizi azaldu du, horregatik, nahi dituen gaiak jorratzen ___23___. Sortzea antzeztea baino gustukoago duela dio Eduardok, eta kaletik bere abestiak entzuten dituenen pozten dela. Bukatzeko, Eduardo argazkiak egiten jarraituko duela argitu ___24___ eta bere lana 'Bira' tabernan egongo da ikusgai abendu honetan egingo den erakusketan.

1- izan da / zen / da

2- zaio / dugu / du

3- dezakegu / gaitzake / dezake

4- dabilta / dauzka / daramatza

5- dira / zuen / zen

6- zen / nintzen / naiz

7- zen / ziren / da

8- nindoan / nintzen / naiz

9- zidaten / ninduten / zuten

10- zuen / nuen / zen

11- zituen / nuen / zen

12- zuten / zituen / zituzten

13- zen / du / da

14- zituen / zen / zuen

15- zaizkio / dizkio / zion

16- dut / nuen / nituen

17- zihoan / zettorren / zebilen

18- dio / du / zuen

19- ziren / dira / zaizkit

20- ziren / dira / zaizkit

21- du / ditu / zuen

22- ditzake / ditu / daiteke

23- du / zituen / ditu

24- zuen / ditu / digu

Orain, ikus ezazu Eduardo Gaviñari egindako elkarrizketa, eta ikusitakoan eman ondorengo galderai erantzun egokia:

https://www.youtube.com/watch?time_continue=2&v=BGNHNELqG9c

1- Nola hasi zen Eduardo ikuskizunaren munduan?

- a- Duela 25 urte Laudion hasi zen, *Las Fellini* taldekoei argazkiak egiten. Gero, Bilbora joan eta taldean sartu zen.
- b- Beti ibili izan da sorkuntza munduan, hasieran argazkilari lanetan. Gero, Bilbon, *Las Fellini* taldearen ikuskizunetara joaten hasi zen, eta egun batean proba bat egitea proposatu zioten.
- c- Hasieran sorkuntza lanetan hasi zen, Laudion. 25 urte geroago Bilbora joan zen *Las Fellini* taldekoei argazkiak egitera.

2- Zein izan da Eduardoren betiko borroka?

- a- Egunez eta argitan Yogurina Borovaren larruan agertzea.
- b- Egun argitan zein gauean bere bi zaletasunak aurrera eramatea.
- c- Egunez jarduera bat egitea, argazkilaritza; eta gauez beste bat, kabareta.

3- Bizitzeko adina ematen al dio musikak?

- a- Egiten duena eginez ezin da bizi, baina gustura egiten du.
- b- Diru nahikorik emango ez balio, ez luke gustura egingo egiten duena.
- c- Jendea ikuskizunetara joaten bada, musikak bizitzeko adina eman dezake.

4- Zergatik kantatzen du euskaraz?

- a- Hasieran ez zeukan oso argi euskaraz abestu behar zuenik, jendearen eta diskoetxearen harreraren beldur zelako. Baina gero ondo atera zen.
- b- Hasieratik argi zeukan euskaraz kantatu nahi zuela. Diskoetxetik ere proposatu egin zioten. Eta jendearen harrera hasieratik ona izan da.
- c- Hasieratik argi zeukan euskaraz abestu nahi zuela, baina jendearen hasierako harrera ez zen espero bezain ona izan.

5- Zein da bere eskarmentua eszenatoki gainean?

- a- Gehien gustatzen zaiona jende aurrean agertzea da.
- b- Berdin gozatzen du musika sortuz eta eszenatoki gainean agertuz.
- c- Gehien gustatzen zaiona sorkuntza prozesua da, ez hainbeste jende aurrean agertzea.



6- Zer esan du bere azken argazki erakusketaz?

- a- Abenduan bira bat egingo duela Euskal Herrian, bere antzinako argazkiak erakusteko.
- b- Abenduan, Bira izeneko tabernan, erakusketa bakarra egingo duela garai bateko eta gaurko argazkiekin.
- c- Abenduan bira bat egingo duela tabernaz taberna, bere antzinako eta oraingo argazkiak erakusteko.

ERANTZUNAK

Esnekiak gogoko ditut

(Yogurinha Borova)

Esnekiak gogoko ditut
Body milk beroa, jogurtxo gaingabetua
Esnekiak gogoko ditut
Titanio zurruta, pantxineta eta goxua
Irrintzi lizunak nahi ditut
Kili-kili efektua ta zezenaren esnea
Maitea, edan ezazu berriz (bitan)
Esnekiak gogoko ditut...

Esnekiak gogoko ditut
Beirazko katilutan zein birziklatutakotan
Esnekiak desio ditut
Bifidus biziegaz, baserriko ausartari
Top modela naizelako, arrakastaz,
Eta maripurtzil aparta
Esne mami epel-epela, zuri-zuria
Jaurtialdi baten bila

Maite nauzu, badakit
Desiratzen nauzu (bitan)
Itxoiten beti, apalean gordeta
Noiz etorriko ote zara?
Zu ni lapurtzeko zain
Hozkailuan zabaldua

Esne bila bizi naiz
Irteeratik oso gertu
Inork ez baitaki
Noiz egin behar den ihesi
Esnekiak maite dituzu...

Maite nauzu, badakit
Desiratzen nauzu

Eduardo Gaviña: "Bilbora etorri nintzenean Bilboko gauak zoragarriak ziren. Gaur, berriz, oso aspergarriak dira"

Eduardo Gaviña (Laudio, 1969) argazkilaria, aktorea, abeslaria, eta, batez ere, kabaretaria da. Yogurinha Borova ezizenarekin ezagutzen dugu eta Bilboko gauetan ikusi dezakegu sekulako arrakasta izan duen 'Eraso sexistarik ez' abestia kantatzen.

Izan ere, Yogurinha Borova urteak daramatza oholtzaren gainean lanean. Pertsonaia *Las Fellini* taldean sortu zen 1994an, Bilbon. "Laudiotik Bilbora etorri nintzen, egun haietan hau itzela zen. Las Fellini ikustera askotan joaten nintzen eta azkenean taldean sartzerara gonbidatu ninduten". Hasieran, *Spice Gays* ikuskizunean parte hartu zuen eta taldeko pertsonaiei izena jartzeko beharra ikusi zutenean sortu zen Yogurinha.

Ordutik, Bilboko taberna eta bestelako aretoetan ikuskizunak, ezkon-aurreko agurrak eta hainbat festetan giroak batera egiten zituzten. Hamar urte eta gero taldea utzi eta abeslari bezala aritu izan da. Euskaraz lan egitea erabaki zuen eta 'Eraso sexistarik ez' abestiak izan duen arrakastak ateak ireki dizkio: "Aurten udan lan asko egin dut, Gipuzkoako zenbait herritan egon naiz, eta jendea beste herrietatik zetorren ni berriro ikusteko, zoragarria izan da."

Hala ere, transformisten lana gogorra dela azaldu du. "Bilbora etorri nintzenean Bilboko gauak zoragarriak ziren. Gaur, berriz, oso aspergarriak dira, ez dago girorik eta lana topatzea zaila da." Baina, ostiral guztietan Yogurinha Borova ikusteko aukera dago. Izan ere, udaletxearen atzekaldean (Kristo kalean) dagoen Key tabernan bere showa egiten du gau horietan.

Horrez gain, disko berria prestatzen ari da. Musikarekin ezin daitekeela bizi azaldu du, horregatik, nahi dituen gaiak jorratzen ditu. Sortzea antzeztea baino gustukoago duela dio Eduardok, eta kaletik bere abestiak entzuten dituenengan pozten dela. Bukatzeko, Eduardo argazkiak egiten jarraituko duela argitu digu eta bere lana 'Bira' tabernan egongo da ikusgai abendua honetan egingo den erakusketan.



BIDEOA

1- Nola hasi zen Eduardo ikuskizunaren munduan?

b- Beti ibili izan da sorkuntza munduan, hasieran argazkilari lanetan. Gero, Bilbon, *Las Fellini* taldearen ikuskizunetara joaten hasi zen, eta egun batean proba bat egitea proposatu zioten.

2- Zein izan da Eduardoren betiko borroka?

c- Egunez jarduera bat egitea, argazkilaritza; eta gauzez beste bat, kabareta.

3- Bizitzeko adina ematen al dio musikak?

a- Egiten duena eginez ezin da bizi, baina gustura egiten du.

4- Zergatik kantatzen du euskaraz?

b- Hasieratik argi zeukan euskaraz kantatu nahi zuela. Diskoetxetik ere proposatu egin zioten. Eta jendearen harrera hasieratik ona izan da.

5- Zein da bere eskarmentua eszenatoki gainean?

c- Gehien gustatzen zaiona sorkuntza prozesua da, ez hainbeste jende aurrean agertzea.

6- Zer esan du bere azken argazki erakusketaz?

b- Abenduan, Bira izeneko tabernan, erakusketa bakarra egingo duela garai bateko eta gaurko argazkiekin.